

XagunArtea

2012ko urtarrilaren 23a

Xagun aldizkaria

73. alea

Hasi da sagardo denboraldia



Sagardotegi-denboraldia hasi zaigu Zerainen ere. Urtarrilaren 5ean, Errege bezperan, ireki zituen atea eta kupelak Oihartek, eta urtarrilaren 13an Otatzak. Bietan giro bikaina egon zen trikitilariak lagunduta, eta Oiharten Lizaso eta Txapi bertsolariak ere aritu ziren. Behin denboraldia estreinatuta, badaukagu non gozatua sagardoa edanez eta jaki goxoak janez! Txotx!!!



Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordenantza fiskala

IBI edo Ondasun Higieziinei buruzko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean hainbat aldaketa onartu ditu Udalak. Aldaketak tarteko, familia ugaria direnek deskontua izango dute zerga honetan. Zehatzago esateko, eta arauak dioena kontuan hartuz, "kuota osoaren %50eko hoberia, subjektu pasiboak familia ugariaren titularrak direnean eta egoera hori frogatzen duten bitartean".

Baldintzak bete eta deskontua eskatu nahi dutenek urtarrilaren amaiera arteko epea izango dute. Horretarako, ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da udaletxean: ohiko etxebizitzaren errolda-ziurtagiria; eskatzaileak dituen etxebizitza guztien balio katastrala 150.000 euro baino gutxiago; O.H.Z. ordainagiriaren kopiak; eta familia ugariaren ziurtagiria. Informazio gehiago nahi duenak udaletxera jo dezake.

Irrien lagunak Zeraingo aterpetxean



Pailazo ezagunen Irrien Klubak egonaldia eskaintzen du Zerainen, aterpetxearekin elkarlanean. Urritik martxan dagoen ekimena urtarrilaren 17an aurkeztu zuten.

Antonio eta Julitak urrezko ezteiak



Untsulategiko Antonio Alustizak eta Julita Lasak urrezko ezteiak bete dituzte. 1962ko San Sebastian egunean ezkondu ziren Olaberrian. Zorionak bikote!

Giro ederrean ospatu ditugu Eguberri jaiak



Eguberri jaiak giro onean joan ziren herrian. Gabon egunean, etxez etxe kantuan ibili ziren kultur elkarteko eta katekesiko, eta eskolako taldeek jarri zuten alaitasuna. Talde handiak guztira 1891,71 euro bildu zituen, eta eskolako taldeak 1034,34 euro. Eskerrik asko herritar guztioi. Gabon iluntzean, berriz, Olentzero jaitsi zen plazara opariak eta gaztaina erreak hartuta.

Olentzeroren bisita Maixunen

Abenduaren 24an, Gabon egunean, goizeko 9.30etan plazan elkartu ginen haur, irakasle eta gurasoak eta ondoren baserriz baserri eta etxez etxe ibili ginen kantuek. Herritarrei eskerrak eman nahi genizkieke beraien eskuzabaltasunaren ondorioz 1034,34 euro bildu genituelako. Diru hori San Diegitoko eskolarako, Saharar karabanarako eta Zeraingo eskolako haurrak igerilekura joaten diren gastuetarako erabiliko da. Eskerrik asko.

Herritarrei eskerrak emateaz gain, Olentzerori ere eskerrak eman beharrean gaude Maixunen utzi dizkigun opari guztiegatik.

Opariak ireki ondoren Kultur



etxean izan ginen San Diegitoko eskolaren inguruko informazioa jasotzen; El Salvadorgo egoera, San Diegitoren kokapena, bertako bizimodua, etab.

Basarte Guraso Elkarteak

V herrien pilota txapelketako finalak jokatu ziren urtarrilaren 8an

Zerain, Mutiloa, Segura, Idiazabal eta Zegamako pilotari gazteen txapelketako finalak Zerainen jokatu ziren otsailaren 8an. Aurten ez genuen herritarrik izan finalisten artean, baina gaztetxoaren arteko partida politak ikusteko aukera egon zen.



Herri eskolan aurre-matrikula egiteko garaia

Otsailaren 1etik 10era egongo da Zeraingo herri eskolan aurre-matrikula egiteko aukera. 2012-2013 ikasturtean Zeraingo eskolara haurrak eramanez nahi dituztenek eskolan bertan egin beharko dute aurre-matrikula. Bestalde, haurreskolan matrikulatzeko aukera ere beti irekita dago.

Pintura erakusketa dago Oiharte nekazalturismoan

Pilar Mujika, Olaberriko margolariaren pintura batzuk erakusgai daude Oiharte nekazalturismoan. Baserriaren gaiarekin zerikusia duten margolanak dira ikusgai daudenak.

Galtzen ari diren hitzak

Ameraunea, Amaraunea

Uste baino lehenago iritsi zaigu hileroko txanda. Elena eta Maria Jesus, biak izan ditut oraingoan gogorazle eta berri-emaille. Prestaturik zuen Elenak hurrengo hitza: *ameraunea*. Hitza eta alboko esplikazioa: "modu batean baino gehiagotan esaten da herrian, Mikel, hitz hori; *amaraunea* ere esaten diogu". Kontua bestea da ordea: "gal-tzen ari

da gazteen artean. Eskolan eta telebistan, *armiarma-sarea* entzuten eta irakurtzen dute batez ere, eta familietan ere hitz hori ari da nagusitzen". Oraingoan ez da beraz erdal hitz bat, euskarazko forma jatorrari lekua irabazten ari dena. Etxe barruko desplazamendua dugu oraingo hau: euskal hitz batek jan egiten dio lekua beste euskal hitz bati, eta azken hori galtzen

hasten da, gazteen artean bereziki. Horixe ari da kasu honetan gertatzen: *ameraunea*, *amaraunea* galbidean barrena doa Zerainen, adin batetik behar koen artean.

Berehala sortu zait galdera: zer alde ote dago *armiarma-sarearen* eta *ameraunaren* artean? Zertan bereizten ote dira elkarrengandik? Beterrikoontzat, *ameraunik* ez da: *armiarmak*

eta *armiarma-sareak*, horiek dira gure izendapen bakarrak. Zerainen biak erabili izan dira ordea, orain gutxira arte. Batetik *ameraunak*, eta bestetik *armarma-sar(e)ak*. Noiz bat eta noiz beste? Betiko bideari eutsi diogu, gure jakin-nahia asetzeko. OEHk zer dioen begiratu dugu batetik; Elenak herrian zer jaso duen aztertu dugu gero. OEHk informazio zabala dakar, bai *amaraunaz* eta bai *armiarma-sare-*



az. Hona bere azalpenak. Hitz hori era askotara esaten da han-hemen: *amaraun*, *amarau amaru*, *amalaun*, *amelaun*, *amama*, *amarama*, *ameraun*, *amareun*, *amerau* (Zegaman), *amaun*, *amau*, *amau-ma*, *amaragu*, *amain*, *amara*, *amoma*, *amon*, *amalma*, *abañ* (Zuberoan), *abaraun*, *aramau*, *arbaraun*. Hitz gutxi topatu izan dugu orain arte, Zerainen galtzen ari direnen artean, zazpi probintzietan hain zabal eta hain xehe hedaturik dagoenik. Gaurko hau dugu horietariko bat. Zer esan nahi du *amaraun* horrek, OEHren arabera? Bi gauza: lehenengo-lehenengo, "tela de araña"; gero, aski bigarren mailan, "araña". Hitz hori darabilten esaldibideak ugari ditugu nonahi. Hona OEHtik jasotako zenbait: "eztu balio amarauna kentzeak, *armiarma* ezpada biltzen", orain berrehun urte inguruko Mogel-en "errege bat dijoanean norbaiten etxera, garbitzen da etxe guzia goitik bera, ez da largatzen amelaun, ez autsik", edota garai bertuko Astarloa durangarraren "etxeunke bertan itxiko, ez bakarrik simaur, basatsa edo loikerija andi eta atsiturik, ezta auts, aramau eta loirik txikijenik bere". Bide beretik doa Duvoisin, Lapurdiko "zokho guziak herrautsez eta amaraunez betheak" aipatzen dituenean, edota Iztueta zaldibiarra bere "erdoiak eta amalaunak" direla medio. Garbi dago beraz: aspalditik dator hitza, eta horregatik ditu hainbat aldaera foniko. Adibide zahar bi emango ditugu, OEHtik jasoak hauek ere, hitzaren hedadura zabal eta aspaldiko horretaz jabetzeko. Axularrek honela zioen: "urthean behin baizen garbitzen eztena, neke baita eta gaitz, zeren hark herrautsa eta amarauna lodi baitu". Oñatiko eskuizkribu zahar batean, berriz, ententitzen zaila den hitza tartean duelarik, esaldi

hau ageri da: "Naastu bagarik beren animak ezeberzkeriako amaraun oneikaz".

Zer dio OEHk, aldiz, *armiarma* hitzaz? Batetik, forma asko dituela: *armiarma*, *armiama*, *amiarma*, *armierma*, *armearma*, *almialma*, *armiarmo*, *armiarmu*, *armiarmalo*, *armiarmau*, *armiarmao*, *armarma*, *armama*, *armiama*, *armimau*, *armimao*, *armimu*, *armirimao*, *armirmau*, *amiama*, *amiama*, *amiama*, *aierma*, *irmiarma*, *irmiarmo*, *irmiarmu*, *ermiarma*, *almiarma*, *miarma*, *amiomau*, *armamio*, *armamoi*, *harmaharma*, *armiarmosa*. Bestetik, "araña" dela beti, ez "tela de araña". Bigarren hori esateko *sare* hitza eransten diogu *armiarmari*, *ameraunari* ez bezala. Hain ugariak izanik ere formak, bat ari da nagusitzen: OEHren esanean, "de entre los muchos nombres vascos de la araña, *armiarma* y sus variantes aparecen en los dialectos centrales, especialmente guipuzcoano y labortano. Las tradiciones escritas de ambos dialectos han adoptado en general la forma *armiarma*". Besterik ere antzeman liteke ordea, goiko adibide ugarietatik: *amerauna* edo *amarauna* etxean (ukuiluan, ganbaran, sabaian, bordan, kortan) agertzen da normalean, ez basoan edo mendian. Aldiz, *armiarma* leku guztietakoa da: mendian gora goazelarik, gurdi-bide bakan-ibil horietako batetik esate baterako, maiz baztertu behar izaten ditugu *armiarma-sareak* aurpegian erantsiko ez bazaizkigu. Elenaren esanean, alde nabarmena dago (adin batetik gorako zeraindarrentzat, ez gazteen-tzat) *ameraunaren* eta *armiarma-sarearen* artean: "armarma-sara edozein lekutan agertu ohi da, eta berrikitan eratua izan liteke. *Amerauna*, aldiz, etxean egon ohi da eta zaharra da normalean: denbora asko darama etxe barruan, ukuiluan edo ganbarako

sabaian. Arina eta oso hauskorra da *armiarma-sarea*. Tela moduko gauza sendagoa, aldiz, *amerauna*". Bereiz-keta semantiko zehatz hori, esan bezala, adin batetik gorako zeraindarren artean gertatzen da, 50 urtetik gorako artean, Elenaren esanetan; gazteek, guztiek edo ia guztiek, *armarma-sara* edo, dotoreago, *armiarma-sarea* esaten dute". Hori da beraz kontua: gizarte-aldaketak berekin ekarri dituen berri-

kuntza ugarien artean,azienda etxetik ateratzea izan da nagusietako bat. Etxetik ateratzea eta, askotan, erabat azindarrik gabeko bizibidea antolatzea. Azienda, berriz, *ameraun-iturri* handi samarra zen: bai ukuiluak eta bai belar-garoak gordetzeko mandio-ganbarak, txabolak eta egilehorrak *ameraun-leku* sendoak izan ohi ziren. Orain ez. Etxeak higienizatu egin ditugu eta garbitasun-kontu horretan galtzaila handi izan dira etxeko *ameraunak*. Kosta egiten da orain, Zerainen eta nonahi, etxean *ameraunik* bilatzen. Bide-bazterretako *armiarma-sareak*, aldiz, ez dira galdu. Ez neurri berean behintzat. Ondorio linguistikoa, nolahi ere, argia da: herriko gazteek aski dute hitz batekin, lehen gertakari bereizi samarrak zirenak kontzeptu eta termino bakarrera bilduz. Euskal hitzen hilerrirako bidea hartzen hasi da *ameraun*, beste ehunka edo milaka dituela bidelagun. Hildako hitzak berpiztu litezke. Berrezarpen lexikalaren bidez gertatzen da hori, hartarako koiuntura zehatza gertatzen denean: kontzeptu edo azpi-kontzeptu berri bat gizarteratzea, kontzeptu berri hori nola esan ez jakitea edo dabilena gustuko ez izatea, norbaitek (linguista edo oinezko hiztun xume) lehengo hitz zahar bat proposatzea eta, bereziki, proposamen horrek arrakasta izatea. Pauso horietariko batzuk eman dira *ameraun* hitzarekin, interneteko *sarea* edo *amerauna* aipatuz. Ez dirudi erabateko arrakasta lortzen ari denik: horretan ere *sarea* ari da irabazle ateratzen, oker ez bagaude. Litekeena da, halere, *ameraun* horrek bere txokoa egitea euskal internauten artean. Denborak esango du.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

ABENDUA	al	ar	az	og	or	lr	ig
				1	2	3	4
Euria (l/m)	GUZTIRA: 191,5 L			0	16	0	0
C° altuena	ALTUENA: 15°			14	10	11	13
C° baxuena	BAXUENA: -3°			4	7	6	7
	5	6	7	8	9	10	11
Euria (l/m)	8,5	7	0	0	0	0	0
C° altuena	11	12	15	14	10	13	12
C° baxuena	9	8	8	6	3	4	3
	12	13	14	15	16	17	18
Euria (l/m)	4	0	1,5	0	17	51	30
C° altuena	13	14	14	12	15	7	7
C° baxuena	7	8	12	8	11	5	3
	19	20	21	22	23	24	25
Euria (l/m)	6	8	9	3	4	1,5	0
C° altuena	9	12	10	13	12	9	8
C° baxuena	2	2	10	9	2	7	-2
	26	27	28	29	30	31	
Euria (l/m)	0	0	4	17	3	1	
C° altuena	8	10	10	8	9	12	
C° baxuena	-3	-2	0	5	4	6	

Neguaeren atari lasaia

Abenduan, eguraldiak modu lasaiean egin zion ongietorria neguari. Euri puska bat egin zuen, ia 200 litro, baina horietatik gehienak astebetean bota zituen. Guztira, zorua busti gabeko hamahiru egun izan genituen. Temperaturei dagokienez ere, ez zen abendua negu giro-girokoa izan. Eguberri inguruan izotz pare bat bota zituen eta aurrez mendi tontorrek zuri-tu ere bai. Baina ezin ahaztu hamar gradutik gora egun askotan izan dugula. Negua lasai iritsi da.



Danborrada San Sebastian egunean



San Sebastian egunean, urtarrilaren 20an, Donostia, Azpeitia eta beste hainbat lekutako ohiturari helduz, Zeraingo eskolako eta haurreskolako umeek danborrada egin zuten. Dotore aritu ziren danborra jotzen, sukaldarien txanoak jantzita.

Santa Ageda bezpera

Ohitura zaharrari jarraituz, eta oles eginenez, Santa Ageda bezperan (otsailak 4, larunbata) kantuan eta eskean irtengo da herriko talde bat, bazkalostean, arratsaldeko 3etan. Urtarrilaren 30ean, iluntzeko 7:30etan egingo da entsaioa kultur etxean. Animatu!

Tute eta mus txapelketak

Liztormendi elkarteak antolatutako tute eta mus txapelketak otsailaren 11n eta 18an jokatu dira, hurrenez hurren. Arratsaldeko 4etan hasiko dira partidak, eta aurrez izena eman behar duke parte hartzeko asmoa duten bikoteek.

Kultur etxeko batzar orokorra otsailaren 11n

Oa kultur elkarteak urteko batzar orokorra otsailaren 11n, eguerdiko 12etan egingo du kultur etxean. Herritar denak gonbidatu nahi ditu bileran parte hartzera.

San Blas eguna

San Blas egunean, otsailaren 3an, ohi bezala ospakizuna egongo da San Blas ermitan. Arratsaldeko 6etan meza eta janari bedeinkapena izango dira, eta ondoren, betiko legean, soziedadean afari-merienda egingo da.

Dantza eta bola kurtsoak

Iazko bideari jarraituz, aurten ere dantza eta bola ikastaroak antolatzeko asmoa dago, kirol komisiok bultzatuta. Interesatuak izena udaletxean eman dezatela urtarrilaren bukaerarako.

Mendian federatzeko

Mendian federatu nahi dutenentzat aukera jarri du kirol komisiok. Interesatuak udaletxera joan daitezela.